



Idiazabalgo Udala

OHIKO UDALBATZARRA 2021eko irailaren 30ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

Aritz Ugarte Munduate. (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

IDAZKARIA: Leire Ucin Soraluze

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Aurreko aktari buruz inork ez du ezer esateko, beraz ONARTUTZATematen da.



Idiazabalgo Udala

2. Dekretuen berri ematea.

Ioritz Imazek, Izal Bairen izenean, komentatzen du Dekertu zerrenda ez dela ikusten ebazpen bakoitza xehetasunez, eta horregatik eskatzen du moduren bat Dekretu horiek digitalki ikusteko. Idazkariak erantzuten dio begiratuko duela.

3- 2021erako udal langileei atzeraeraginezko efektuekin %0,90 soldata igotzea onartzea, hala badagokio.

Txostena:

Estatuko 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen III. tituluko I. kapituluan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuak arautzen ditu, eta, zehazki, 18. artikuluan, 2021eko ekitaldirako ordainsari-igoeren mugei heltzen die, eta honako hau arautzen du:

18. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuen arloan.

(...)Bi. 2021. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariekin ezin izango dute ehuneko 0,9ko igoera baino handiagoa izan 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, alderaketaren bi aldietarako homogeneotasuna mantenduz. Gizarte-ekintzako gastuak, oro har, ezin izango dira handitu 2020koen aldean. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanagatik kontraprestazioez bestelako onurak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, sektore publikoaren zerbitzura dauden langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko premia jakin batzuk asetzea helburu dutenak.

Aurrekoa ikusita, abenduaren 30eko 11/2020 Legea indarrean sartu ondoren, eta Eudelek aurreko ekitaldietako ordainsari-igoerei dagokionez egin duen bezala, egin ditzakeen interpretazioak argitze aldera, egokitzen jotzen da euskal udalei honako hau egitea:

GOMENDIOA

11/2020 Legearen 18 Bi artikulua edukiari dagokionez, Eudelek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea, 2021/01/01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko % 0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai antzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.

Gomendio horren bidez, Eudelek lege-agindu horren irismen juridikoa argitu nahi du, eta horrek guztiak negoziazio kolektiboaren esparruan etorkizunean aurrera egiteko bidea erraztuko duelakoan, UDALHITZ Akordio arautzaile berri bat lortu ahal izateko.

Era berean, EUDELEK berretsi du garrantzitsua dela “UDALHITZ 2008-2010 Akordioa” bere terminoetan betetzea, lortutako akordioak benetan betetzean baitago haren berme nagusia, eta, gainera, sektoreko akordio berri bat lortzeko legitimazio gisa balio du. Ildo horretan, gaur egungo



Idiazabalgo Udala

UDALHITZ 2008-2010 betetzeak izan ditzakeen hutsuneak konpontzeko tresnak, azken zirkularretan gogorarazi dizuegun bezala, erakunde bakoitzean gaitutako "jarraipen-mahaiak" izan beharko luke. Gogorarazten dizuegu mahai hauen xedea dela, soil-soilik, egungo UDALHITZ

2008-2010 Akordioan gerta daitezkeen balizko ez-betetze puntualak konpontzeko akordioak erraztea, eta ez dutela ireki behar kanpoko gaietarako buruzko edozein negoziazio-prozesu, zeinaren aplikazio-eremua EUDEL-en eta sindikatuen arteko UDALHITZ Negoziatio Mahai Orokorrean dagoen.

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Iñaki Alberdi (alde), Iñaki Arriaran (alde), Aloña Barandiaran (alde), Ioana Prados (alde), Iortiz Imaz (alde), Andoni Gomez (alde)

Beraz, AHO BATEZ ONARTZEN DA 2021erako udal langileei atzeraeraginezko efektuekin %0,90 soldata igotzea

4. Galdera eskaerak.

Iortiz Imazek, Izal Bai Udal taldearen izenean ondorengo gaiak jartzen ditu mahai gainean:

- Aguazilaren Udaltzain funtzioak: Galdetzen du ea noiz hasi behar den horretan; alkateak erantzuten dio sistema informatikoa prestatu behar dela multak kobratu ahal izateko, eta horretan ari direla teknikoak.
- Mendiko abeltzainen eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioaren harira, Iortiz Imazek galdetzen du ea bidali zer Plenoko onarpenaren ziurtagiria Mozioan xedatzen ziren erakundeetara; idazkariak ezetzkoa dio, baina esaten du bidaliko dituela.
- Igerilekuko araudia: komentatzen du araudia landu behar dela kiroletako Batzordean.
- Ane Minteguri ematen zaion dirulaguntza: galdetzen du ea, hitzarmena igotzeko Izal Bairen proposamena dela eta, ea zerbait pentsau al duten; alkateak erantzuten dio ez dutela Gaia aztertu.
- Aldi bateko administrariaren izendapenari dagokion Dekretua azaltzea nahiko luke, Alkateak erantzuten dio hurrengo Ogasun Batzordera eramango dela gaia.
- Espazio irekien erabilera: Izal Bai proposatzen du gai hori Hirigintza Batzordetan lantzea; diote galdeketa zabaldu dela Plan Orokorra kontuan hartu gabe. Herritarren hainbat proposamen jaso direla, baina Plangintza Orokorrearen arauak bete egin behar direnez, diote proposamen asko ez direla bideragarriak. Esaten dute herritarrek ez dakitela proposamen horiek guztiak zer suposatzen duten urbanistikoki. Aloña Barandiaranek

+



Idiazabalgo Udala

-
-

erantzuten dio herritarrei emandako parte hartzeko aukera horrekin nahi dutela beraien lehentasunak jakitea.

- Baserritarren Elkarteko hitzarmena: Izal Baiko kideek diote ez dutela ulertzen zein arazo dagoen Baserritarren Elkartearekin hitzarmena sinatzeko; beraiek defendatzen dutena da, xehaketa lan horiek ez direla kontratazio publikoaren ildotik aztertu behar, interes publikoko ekintza baten moduan baizik, orain arte bezala hitzarmen bidez; idazkariak esaten du Foru Aldundiko "Goilarre" programan sartuta dauden herrietako herri-onurako larreetako xehaketak lehiaketa bidez esleitzen direla, Idiazabalen ez ezik. Ioritzen erantzuten dio beste herriek nahiko luketela Idiazabalen finkatuta dagoen sistema izatea.
- Baserritarren Elkartekoek txabola eraikitzeke eskaerari buruz, Ioritz Imazek esaten du beraien ustez horretarako borondate politikoa behar dela, eta jarraian aztertu ea teknikoki bideragarria den. Alkateak erantzuten dio aztertuko dituztela aukerak eta borondate guztia dutela horretarako.
- Ikastetxea: galdetzen du ea eskatu al duten gelak banatzeko kristalera. Alkateak erantzuten dio aurreko urteetan beraien lehentasuna hori zela, baina aurten ez dutela eskatu.

Behin puntu honetara iritsita, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 18:55an, eta akta hau egin dut bertan erabakitakoa jaso dadin eta beharrezko efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2021eko irailaren 30ean.

O.I

ALKATEAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK

Leire Ucin Soraluze